

HERRI-HIZKERAKO LEXIKOAREN ALTXORRETIK

Xabier KINTANA

Aymeric Picaud-ek gure hizkuntzaren lehenbiziko hiztegitxo XII. mendean bildu zuenetik euskal hiztegitzak bide luzea egin du. Beste hizkuntzetan bezala, hemengo hiztegitak ere ahozko eta idatzizko tradizioaz baliatu dira euskal hitzen inbentarioa egiteko. Pouvreauk, Larramendik, Añibarrok, Aizkibekek, Azkuek edo Lhandek egindako hitz bilduma handiez gainera, autore askok herri-hizkerako zerrendatxo ugari argitaratu dizkigute, aurreko lanen osagarri. Osatu bai, baina ez ordea behin ere amaitu, hitz-biltzaileak, intsektu espezie berrien atzetik diharduen entomologoak bezala, ongixko baitaki hori bukaerarik gabeko zeregina dela. Halere, hitzak metatzeko lan honek badu garrantzirik edozein hizkuntzaren lexikoari gero eta zedarri zehatzagoak ezartzeko.

Herriaren ahotik jasoriko hitzek, ahozko literaturarekin gertatzen den bezala, existentzia iragankor eta paradoxikoa dute, paperean horien berri eman bezain laster ahozko izate soilari betiko uzten diote eta. Hori dela eta, ene ustez, metodologia hertsiegiazen uztarriaren zama alde batera utzirik, ez genuke hain uzkur eta mesfidati izan behar jendeak eskuarki darabiltzan eta segurtasun osoaz aipatzen dizkiguten hitzak onartzeko. Izan ere, hitz berberei, behin idatziz agertuz gero, automatikoki onargarri iritzi ohi diegu, izkribuzko lekukotasuna beti hobea balitz bezala pertsona bizi eta egiaztagarrien ahozkoasuna baino, testigantza idatzi orok, aurretik eta nahitaez ahozkoa eta buruzkoa dituela ahantzirik, oroipenaren ahuleziaz edo belarri txarragatik okerrak batean zein bestean berdintsu gerta daitezke eta.

Eremu mugatuko hitzek, ordea, dela geografiagatik edo dela adierazten dituzten kontzeptuak, ohiturak, lanbideak edo objektuak gainbehera datoze-lako, denboraz ahantziak izateko zoritxarra ohi dute, garaiz biltzen ez badira behintzat. Halakoei maizegi berba zaharkitu esaten zaie, egiazki zahartzen

dena, zeinuaren adierazlea barik, adierazia bera izaten dela kontuan hartu gabe. Eta zoritxarrez, baserri-giroko, eremu mugatuko edo iragan denboretako bizimodua kontatzean, gaurko idazle, itzultzaile eta esatariek euskarazko hitz “zaharkitu”etara ez jotzearen, batzuetan ez dute inolako lotsarik izaten erdal erdarakada nabarmenak erabiltzeko, horiek gureak bezain “zaharkituak” ez balira bezala. Euskal Telebistak Baztango haranaz egindako dokumental eder batean (1997/2/6), entzunarazi dizkigun *zuecoak* (sic) eta *ezkutuak* edo Euskadi irratiko SEAT etxearen iragarki batean egunotan entzun daitekeen *Pulgartzito*-ren ipuina bezala, esatari izateko jaio ez garenok, orain arte bederen *eskalapoiak*, *armarriak* eta *Erpurutxo* moduan ezagutu eta deituak.

Ondoko lerro hauetan Hego Euskal Herrian —Bizkaian eta bere inguruetan batez ere— entzundako hitz eta esaldi batzuen berri emango dut, zenbait kasutan badaezpadako etimologiaren itsaso hondargabeen barna abiatzeko ausartzia barkagaitza izanik. Berba gehienak euskarazkoak dira baina badira hiruzpalau erdarazko ere. Guztiak herriko jendearen ahotik jasoak ditut, horietako batzuk jadanik beste nonbait aipatuak izan arren.

abar: Lizarraldean (Etaiu herrian) erdaraz gaur egun erabiltzen den hitza, Gregorio Monrealek aipatua: *ir al monte a por abarras para hacer fuego*. Hitz hau Azkonako seme den Luis Antonio Montes Andía-ren *Memorias de un chico de pueblo* liburu interesgarrian aipatzen da¹, gure hizkuntzaren beste anitz hitzekin batera. Bada hor Deierriko hondarrezko euskal lexikoa egiteko material ugari, herri horren oraintsu arteko euskalduntasunaren lekuko, J.M. Satrustegik luze eta zabal azaldu duenez².

alderatu: ‘ondoratu, hurbildu’. Esangura aldetik erabat ezaguna den aditz hau, ez da maiz azaltzen aurreko hitzarekin *-ren* atzizkiaren bitartez loturik. Hona hemen Erandioko Goiherri aldean entzundakoa: *Gure familia-gaz hasieran ez zan ondo konponduten, baina gero, gure alderatu zanean, lagun handiak egin ginen*. Bide beretik ibili zen herri-lanetako iragarki batean ‘ingurunearen bereoneratzea’ itzuli zuena.

alobera: ‘alokairu, soldata’. Erandioko Goiherriko hitza, *alobera*-ren aldakia; *aloberan ibili da, inorentzat behar egiten*.

alobia: ‘indaba, babarrun’. Lekari horrek izen asko hartu ditu bai euskaraz (*babarruna, indaba, indibaba, indiarra, baba gorria, ilar...*) eta bai gaztela-

¹ Luis Antonio MONTES ANDÍA, *Memorias de un chico de pueblo*, Lizarra, 1990.

² Jose Maria SATRUSTEGI, “El euskera en Tierra Estella. Evolución histórica”, in *Euskera*, 1991, 1, 36. liburukia (2. aldia), Bilbao, 1991 (93-124. orr.).

niaz ere (*alubia, judia, habichuela, frijol...*). Jatorria Amerikan du, euskarazko *indiarra, indibaba* eta aztekerazko *ayakotl*-etik heldu den frantsesezko *haricot* hitzek garbi salatzen dutenez. Amerikar produktu berriok deitzaerakoan, hango izena hartzen ez zenean (*maiz, tomate, txokolate, kakao...*) bertan lehenago ezagutzen ziren antzeko beste landare batzuen izenak erabiltzen hasi ziren (Cf. eusk. *arto, baba*; galiz. *milho* 'artoa'; astur. *fabes*, esp. *habichuelas...*). Horietako bat *alubia* izan da, gaztelaniak arabierazko *al-lubiya*-tik mailegatu, honek, bere aldetik, persieratik jaso, zeinetatik georgierak ere hartua baitu, *lobio* formarekin.

Hortaz, Euskal Herrian produktu berri hau izendatzean sorturiko soluzio ezberdinak ikusirik, harrigarri xamarra zen arabierazko hitza gure artean inon ez gelditzea, bazter eremu txikiren batean bederen, are gehiago, beste landare batek, artoak, askoz ere izen batuagoa izan arren, *maizgona, maizalasto, maiz-txuriketa* moduko kumeak utzi dituela gogoan izanik. Dena den, aurtan Nafarroako Arbizu herrian bai *alobia* eta bai berorren aldakia den *aloia* hitzak entzuteko parada izan dut, -a organikoarekin: *alobiaat, aloiaat*. Interesgarria da, halaber, herri berean artoari oraindik *meiza* esaten diotela jakitea.

andaputxu: Orozko haranean jasoriko hitza, 1996.ean Frantziska San Sebastian Uribasterrak, (orain 96 urte jaiotari) entzuna, eta beste auzoen artean egindako galderen arabera, haran osoan ezagun-ezaguna da. Horrekin baserri batzuek etxeari loturik daukaten harrizko eranskin harmailaduna adierazten da (Ikus argazkiak): *amamari andaputxuan eguzkitan jezarrita egotea gustetan jako*. Berba hau Orozkotik kanpoan ere ezaguna da, Juan Jose Estiballes zeberioztarrak esan berri didanez, bere herrian berdin esaten da eta.

Formagatik, eta esangura kontutan harturik, erdal mailegutzat jo daiteke, eta gaztelaniazko *antepecho*-tik datorke. Bilakatze fonetiko legeen arabera, ordea, beste posibilitate bat ere kontsidera liteke, etimotzakoa gure artean erabilera berrikoa ez balitz: *andamio* > **andamu* > *andapu* + *txu* txikikariarekin bukatu.

anpor: 'birrin, zatitxo, apur'. Erandioko Goiherriko hitza; bakarrik edo ogi eta arto hitzekin besterik ez da erabiltzen: *ogi anporrak, arto anporrak*. Jesus Sagasti Orozkoren eta bere emazte Begoña Aurrekoetxearen lekokutasuna. Azkuek *anpur* aldaki itxuraz hedatuagoa dakar.

behi zuriaren tripa: lagunartean edo famili giroan, batez ere hurrekin mintzatzen denean 'ohea' adierazteko esaera, Nabarnizen jaso. *Ea umeok, behi zuriaren tripara guztiok, berandu da eta. Neguan bai ederto behi zuriaren tripan, epel-epel*.

bigantxa bertxina: Nabarnizen entzundakoa, lagunartean 'neskato azkar eta polita' esateko. *Ai, Begotxu, zu zara gure etxeko bigantxa bertxina*.

Jatorriz Bierzoko arraza bereziko idi, behi, edo bigantxaz esaten zen; argalak eta marra gorri-belzdunak izaten ziren. Bizkaiko beste leku batzuetan, Durangon esaterako, bertziano/bertziana aldakiak daude: *idi bertzianoa, behi bertziana*.

bilin-bolo: ‘zapaburu’ Nabarniz eta inguruetako hitza, igelaren kumearen igeriketa baldarra fonetikoki imitatzen duena.

brena: hitz hau *Orotariko Euskal Hiztegia*-n dator, ‘grama’ esanguraz, Federico Baraibarrek 1903.ean argitaraturiko *Vocabulario de palabras usadas en Alava y no incluídas en el Diccionario de la real Academia Española, o que lo están en otras acepciones o como anticuadas* liburutik bildua. Kantabriako Sobako haranean ere, Santa Maria auzunean preseskiago, hitz hori erabiltzen da, baina beste esangura du. Han, Euskal Herrian bezala, ekainean larrezelaietako belarra mozten da, lehortu eta mandioetan gorde ondoren, abereei neguko bazkatzat emateko. Udaberriko lehen belar hori moztu eta gero, udako beroak larreak eskuarki lehorturik uzten ditu, harik eta irailleko euriak lurra beriro busti arte. Orduan sortzen den *bibelar* horri esaten zaio han *brena*, eta ez belar espezie berezi bati: *No pises la brena; mira que brenas han salido después de tanto llover*.

Itxuragatik, hitz honek jatorri zeltikoa izan dezake (cfr. fr. *brin* ‘belartxo, zurtointxo’, *brindille* ‘abartxo’, galeseraz *brwyn* ‘ihia’).

brintzatu: ‘birrindu, zati-zati egin’. Erandioko Goiherriko hitza. J. Sagasti eta B. Aurrekoetxearen lekotasunez. Nabarnizen ere erabiltzen da, *brintza* eta *brintzak egin* hitzekin batera: *ogi brintzak; txarrikian sarritan hazur brintzak aurkitzen dira; ez ibili ogiagaz brintzak egiten*.

durditu: ‘(kolpez edo kanpoko eraginen baten ondorioz) zorabiatu, konorte gabe gelditu, zer egin jakin gabe egon’. aditz hau, Azkuek *durdidu* forman Arratian bildua, Gernika aldean ere forma berean (Nabarnizen) bizirik dago. *Kolpeaz durdiduta itxi eban*. Horrez gainera, Uribe-Kosta aldean *turdidu* forma ere entzuten da. Begien bistan denez, mailegu erromantzea dugu (*gazt. a-turdidu*), era horretako hitz zahar askotan bezala, aurrizkia galdurik. Euskarazko aldaketa fonetikoaren iraupenaren kronologiarako interesgarria da, edonola ere, hasierako *t- > d-* bilakatzea, *torre > dorre* kasuan bezala.

égi / égi éz!: Leioa-Erandioko Goiherriko eskualdeko esaera: ‘noski, jakina’ / ‘bai zera! Ez da egia izango’ esangurekin: *Ez zara konturatu giltzak mahai ganean itxi dozuzala? Égi! Nik bai burua! Anton hil? Egi ez! Atzo tabernan ondo ederto ikusi nauen eta*.

egokizun: Nabarnizen, Bizkaian, Andere Goiriena andreari (80 urte) entzundakoa: ‘nonbait ostaturik egoteko denbora, egoitza, egotaldi’. *Gasteizen estudiantuz gero matrikulea merkeagoa da Deustun baino, baina egokizuna*

kontuan hartuta, azkenean karuago urteten dau. Egokizun-gastuak handiak izango dira Bartzelonan.

el cendoco: 'eltzondoko, eltzea beheko suan jartzeko burdinazko pieza, (Iruñean *eltzendoko*)', Villatuertako seme den Francisco Goñi eskolapio zaharrari bere herriko berba gisa entzundakoa hasierako elementua erdal artikuluzat berrinterpretatua: *poner el puchero en el cendoco; mira que cendoco hay ahí*. Luis Antonio Montesek bere *Memorias de un chico de pueblo* liburuan, aldiz, honela aipatzen du: *Los arrimaderos de los pucheros tenían un nombre muy raro, elceburnes* (191. or.).

errenta-etxe: 'etxe alokatua, errentapeko etxea'. Erandioko Goiherri aldean erabiliriko hitza: *Antonio errenta-etxean bizi da*.

exa: 1546.eko *Refranes y Sentencias* liburuan 'golde' moduan dokumentatzen den hitz honek (exako ogia onegia, '*pan de arado demasiado bueno*' RS 224) bizirik dirau oraindik Erandioko Goiherri aldean 'punta bakarreko goldea' esanguraz.

ezteko: Uribe-Kostaldean, *-teko* aditz-atzizkiak erabilera bitxia du ezezko esaldietan. Horretara, *...-teko / ez ...-teko* bikotearen orde (egiteko / ez egiteko), han *...-teko / ... ezteko* esaten da: *egiteko / egin ezteko; joateko / joan ezteko; ikusteko / ikusi ezteko*. Halere, *ezteko* era hau ez da behin ere erabiltzen perpausa agindupeko aditz baten menpekoa denean: *Aitak ez etorteko esan deutsu. Esaiozu amari ez joateko*. Hori dela eta, susma daiteke, noski, era hau lehenagoko *ez (egi)teko* gisako batetik heldu dela, baina ez da inondik ere entzuten espero zitezkeen *ez(e)iteko* aldakia. Dena dela, gogoan izan behar da, eskualde berean *-i* bukaera duten aditzen etorkizuneko formek inoiz bukaera hori galtzen dutela: *etorko da*. Bestetik, *arren*-en erabileran antzeko ezberdintasuna aurki dezakegu: *jakin ez arren / ez jakin arren* (Etxep.).

girbitza: 'zati txikia, ezpala'. Erandioko Goiherriko hitza: *girbitza bat gelditu da hor; egur girbitzaz beterik itxi dau lurra*.

gortakada: Uribe-Kostako hitza, 'gorta bete ganadu' adierazteko: *gortakada ederra dauko Txominek; Demostiko baserrian bai gortakadea!*

(h)ago: ahuntzei 'gelditzeko' esaten zaien hitza, Gregorio Monrealek Etaiun oraindik erabiltzen dela azaldu didanez.

heldu den: gauza jakina denez, *heldu* aditzaren jokoa ez da Euskal Herri osoan berdin egiten. Hegoaldeko gehienok *heldu den* 'etorri den, iritsi den' esanguraz darabilgun artean, ekialdeko euskaldunentzat 'datorren' esan nahi du: *heldu den hilabetean = datorren hilabetean*. Azken erabilera hau, ordea, ez da soilki, iparraldekoa, Nafarroako Arbizu herrian ere, Sakanan alegia, halaxe esaten baita: *heldu den igandean* 'datorren igandean', *heldu den urtean* 'datorren urtean'.

ipar legorra: Orozkon 60en hamarkadan Elias Goti errotari zaharrari entzundako berba. Testuingurua hauxe zen: negu hotza zen eta iparrak gogor jotzen zuela esan nionean berak honela erantzun zidan: “*Bai, baina iparra ez da hotzena. Txarrena ipar legorra da, itsaso aldetik barik, legorretik, Siberia aldetik datorren haize gogorra. Horrexek, horrexek hotzituden dau denpo-rea*”. Ipar-ekialdeko haizea alegia.

iturri: ‘likidoen botilak (gaur garagardoena batez ere) tapatzeko meta-lezko estalki horzduna’. Izen hau Bilboko eta inguruko herri askotako haur guztiok ezagutu eta erabili dugu, eta horiekin, erdian txirrindulari baten argazkia jarri, beira biribildu zati batez estali eta hegialak masillaz edo xaboi bigunez hornituz hatz kolpez mugitzeko jolasa antolatzen genuen.

Iturri izen honek jatorri ezaguna du: Bilbon mendearen lehen hamarkadetan limonada fabrika bat jarri zen Errekaldeberri auzotegian, Pagasarriren oinuan, eta industri izena hango metal-uraren iturritik hartu zuen: Limonadas ITURRI GORRI, urak disolbaturik zeukan burdinak iturriari kolore hori ematen zion eta. Esaniko limonadaren botilek estreinatu omen zuten gure artean estalki horzdun hori eta han letra handiz ITURRI GORRI irakur zitekeen. Haurrek, eta pertsona nagusiek ere bai, hortixek hartu zuten tapa mota berri hori bataiatzeko berba: *iturri*. Gaur egun ere Bilbo aldean erdaraz erabat normala da *Quitale el iturri a la botella* entzutea edo *jugar a iturris*. Euskaraz ere, Durangoraino behintzat, *iturri* esaten zaio, eta jolasari *iturrika olgau, iturritan egin*.

jenero [xénero]: Uribe-Kosta aldeko hitza. Lehen esanguran, gutxienez Bizkai osoan ‘salgaiak’ adierazteko erabiltzen da, batez ere baserritarrek mekartura dakartzaten ortuari edo barazkiak aipatzen direnean: *jenero ona daukozue gaur; ekarri dodan jenero guztia saldu arte hemen egon behar*. Baina adiera horrez gainera, Leioa-Erandio aldean bestela erabiltzen da; esatera honetan bereziki: *orain beste jenero bat* ‘goazen orain beste kontu edo arazo bat tratatzera’. *Orain beste jenero bat: bihar mendira ala itsasora joateko zara?*

jorrari: ‘hildoak egiteko erabiltzen zen tresna, idi birekin eramatekoa’. Haga luzearen atzean bi burdin zeramatzan, lurra urratzeko. Erandioko Goiherrin Jesus Sagasti Orozko esan eta xehetasunez azalduko berba. Azpimarratzekoa da, *-ari* atzizkia eraman arren, bizidun egile bat barik, tresna adierazten duten hitz bakanetakoa delako.


kauziño egin: ‘kasu egin, ardura izan’; Azkuek *kausiño* moduan dakar: *ez egiozu kauziñorik*; Leioa-Erandio aldean eskuarki erabilia. Erdarazko *caución*-etik datorke, gaztelania zaharrean aski erabilia, eta azken buruan latinezko *cautio*, *-onis*-etik (cfr. frants. ing. *caution*).

kiriko: Beste euskalkietako *triku* eta *sagarroi* deitzen den animalari (*Erinaceus europaeus*) *kirikino* eta *kirikolatz* deritzo Bizkaialdean,

Mitxelenaren ustez behialako **krikino* batetik sortua, **trikino* aldakia gaurko *triku*-ren iturburua litzatekeen bezala. Animalia horrekin duen antzagatik, leku batzuetan gaztainaren fruituaren inguruko azal latzari ere *kirikio* esaten zaio, Bizkaiko beste zenbait tokitan, Nabarnizen adibidez, *lakatz* izena duen arren. Murgian (Araban) azken adiera honetan oraindik *kiriko* esaten da erdaraz: *ir a recoger kirikos* (Gasteizko Agustin Otsoa Eribeko-ri jasoa).

lamada: Nabarnizen jasoa. *Diccionario de autoridades del Euskera*-n *lamara* forman dator, seguraski esangura berberaz. 'Toki bero batetik datorren edo irteten den beroaldi handia' esan nahi du. Adibidez, udan etxe barru freskotik irten eta eguerdian kanpoko eguzkitara irtetea: *Hau lamadea!*; labearen atea irekitzean: *Pua! zelangoko lamadea datorren! Itxizu ate hori, mese-dez! Ez dakit zelan agoantau zeinkien hemen dagoen lamadeaz.*

lastan / laztan: Bizkai-Gipuzkoetako hitz honi buruz pasadizo bat azaldu behar dut. Duela hamar bat urte Nabarnizera egindako bisita batean bertako alaba den Andere Goiriena andrea (orain 80 urte dituen) artadian lanean ikusi nuen, arto landareen goiko zatiak mozten, ganaduari jaten emateko. Hura ikustean nik agurtu eta *-Zer, lanean?* galdetu nion. Berak honela erantzun zidan: *-Bai, hementxe, lastanak egiten.* Ezusteko ihardespen hori entzutean jarri nuen harridura-aurpegia ikusita, berak, ordea, segituan azaldu zidan: *-Hara, lastaganak esan gura dot, baina hemen normalean lastanak esaten dentsegu.*



Orozkoko etxea aurrean andaputxua duela

Azalpen hori entzutean, *laztan* hitz ezaguna nondik etor zitekeen bururatu zitzaidan bat-batean. Jakina denez, Amerikatik gaurko artoa heldu baino lehenago, oraingo artatxikiari esaten zitzaion euskaraz artoa. Berriak ez bezala, zaharrak artaburuak edo buruxkak goiko aldean zeuzkan, eta horixe zen, hain zuzen, landarearen zatirik estimatuena, jateko garauak zeuzkana. Hortaz, lastoaren gaineko buruxkak, lasta-ganak edo lastanak alegia, etxeko elikadurarako biltzen zena zen, lastoa abereentzat utzirik, gaurko arto berriarekin *lastagan* horiek animala bazka bilakatu badira ere.

Edonola ere, hortixek datorke, nik uste, bigarren adiera figuratuan *laztan* hitza, 'maite, estimatu' esanguran. Bestalde, *lastan* > *laztan* aldaketan ez dago gaindi ezineko eragozpenik, ondoko horzkariaren eraginpean asimilazioz aurreko s hori problemarik gabe z bilaka daiteke eta, are gutxiago hitza, itxura denez, jatorriz mendebaldekoa dela gogoan izanik, eremu horretan s / z arteko bereizketa aspaldian galdu zen eta (cfr. *jazo/jaso*, *ziur / segur*, *zindo / sendo*, *baster / bazter* eta baita, askoren ustezko *Garzea* > **gastea* > *gaztea* ere).

Formari dagokionez, etimologia horrek kide hurbila du *bikain* hitzean (<*bihi-gain) *bibi* hitzak **bit-* aldaki laburtua duela uste izanik, *behi-k bet-* eta *zohi-k zot-* duten bezala (Cfr. *betesege*, *betizu*, *betolatza*; *zotazal*), bai eta *esnegain* berban ere, *ga(i)n* hitzak euskaraz 'gauzarik hoberena, gorena' adiera ere baitu. Erabilerari dagokionez, lekukotasun zaharrek *norbaitek norbait laztan izan* gisako adibideak erakusten dizkigute 'estimatu izan' alegia, hitzaren ustezko etimologia indartuz.

Duvoisinien hiztegi eskuizkribatuan *laztain* hitza dator, z-rekin, 'lirain' esanguraz. Hori ere *lasto* hitzetiko etimologia berberaz azal liteke, dirudienez iparraldeko den berba honen azken osagarria, 'gain, garai, goiko' neurri-adieran harturik.

leba/lleba: 'garrantzi, ardura'; Bizkaian Uribe-Kosta aldean (Berango, Getxo, Leioa, Erandio, Urduliz...) erabiltzen den hitza; Azkuek *lleba emon* (*Martinek ez deutso horrerri llebarik emoten*) dakar, baina askoz gehiago erabiltzen da *lleba eduki* esaldian: *Zu trankil: etorri ez arren, horrek ez deuko llebarik; bai llebea deuko, eta handia ganera; kontu horrek deukon llebagaitik ni ez ninteke arduratuko; lleba handia deuko horrek*. Horrez gainera, eskualde berean, eta pertsona berberen ahotik, *leba* aldakia ere entzuten da, seguraski batasunerako egokiagoa.

lotin: Azkuek hitz honi "lur bustia" eta "ogi arrotu gabea" esangurak ematen dizkio. Nabarnizen, ordea, izenondo arrunt gisa erabiltzen da, arrotu gabeko edozein gauzari esateko: *ogi lotina; lur lotina; tarta hau lotin-lotina gelditu da; pasta hori ondo lotinik dago behintzat*; erdarazko 'apelmazado' bezalaxe. Etimologiaz **lot(u)-din-*etik sortua dateke.

lumabedar: Nabarnizen ahoz bildua. Garduen loreetako hazi hegalaria. Haurrek jolasteko hartzen dituzte, beren gainera putz egiteko, aurretik lagunari galde eginez: *moja ala fraile?* Putz egin ondoan landareak lumatxo guztiak galtzen baditu, moja da; ale batzuk hegaz joan barik gelditzen bazaizkio, ordea, fraile. Euskara batura iragateko, noski, *lumabelar* gisa idatzi beharko litzateke, homologazioaren zerga ordainduz .

maltzar: Bizkaian Uribe-Kostako euskaraz ‘asmo txarra, gaiztakeria, malizia; eskuarki ezezko esaldietan erabiltzen da: *hori maltzarbako gizona da; nik behintzat hori maltzar barik esan deutsot; gizon horrek ez denko bape maltzarrik; maltzarraz egin dau*. Dirudienez, hitz hau bikote semantiko horietakoa dugu, gaztelaniazko *mal*-i euskarazko *txar* erantsiz sortua. Litekeena da, ordea, hemen ere *mal*- hori aurrizki gisa erabilia izatea, erdal kalkoari jarraituz inoiz gertatzen denez (Cf. *malfraile*, *maltzur* <**mal-zuhur*, *malgizon*...).

mendema: ‘mahats-biltze’ Gregorio Monrealek esan didanez, bere jaioterrian, Etaiun, Lizarra ondoan, hitz honek oraindik bizirik dirau, gaztelaniazko *vendimia*-ren orde: *ir a la mendema; ya llega la mendema*. Leizarragak hitz berbera erabiltzen zuen, *mendematu* aditzarekin batera.

molso: ‘mordo, moltso’ Deierriko hitza, G. Monrealek baitetsi didanez. *Memorias de un chico de pueblo* liburuan adibide hauek ageri dira: “*grandes molso de juncos, cilíndricos y flexibles*” (132. or.). Azpimarratzekoa da, bestalde, euskaraz *moltso* hitzaren lekukotasuna batez ere mendebaldeko euskalkietan agertzen zaigula.

Moltso hitza Erandioko Goiherri aldean, ‘talde, mordo, multzo’ ohiko esanguraz gainera, adjektibo moduan ere erabiltzen da, ‘andre potolo, kankailu, zurrun edo gorpuzkeraz jausia’ adierazteko: *horra hor, andra moltso hori. Baina ikusi bazendu gaztetan zelango neska ederra zan; etxean ez zan inor bizi, atso moltso bat baino; han andre moltso-moltso bat ikusi neban*. Toki berean, gizezkoiei esateko sinonimo gisa, *boldrongo* esaten dute, Bizkaiko *boldro* ‘potolo ganorabako’ arruntaren aldaki gisa.

nondi(k) ahal dozun: Oraintsu Erandiko Goiherri hildako andre zahar bati entzundako esaera. Testuinguru honetan esan zuen: berarekin alaba eta suhia bizi ziren, berau etxe hartara ezkondua. Suiharekin haserretu zen batean, alaba bere ondora ekarri eta gizonari honela esan zion: *Hau nigaz. Zu zoaz nondi ahal dozun*, hau da ‘ahal duzun lekutik’. Era honetako egituren atzetik ibiliz, toki berean *bakotxak egiten dau zelan a(ha)l dauen; zelan a(ha)l dogun egiten dogu* ere jaso ditut, han ere ohikoak izaten diren *bakotxak a(ha)l dauan moduan egiten dau* eta *a(ha)l dogunez egiten dogu* moduko esangurakide.

okaran: ‘aran’. Mendebaldeko hitz hau Nafarroako Etxarrin ere esaten dela jaso zuen Azkuek. Aldameneko herrian ere, Albizun alegia, berdin esaten da.

olana: 'lona, toile à voile' Azkuek Lekeitioko hitz-tzat jotzen duen hau Elantxoben ere erabiltzen da, eta litekeena da kostaldean hedatuagoa egotea. Halere, ez du esan nahi, soilki, 'untzi-oihal', edozer gauza estaltzeko oihal lodia baizik. Azkuek zioenez —eta Corominas-ek holaxe berresten du— Frantziako mendebaldeko Olonne hiriaren izenetik dator, hantxe egiten baitziren oihal horiek.

ordea: Lizarraldeko erdaran oraindik erabiltzen den hitza, Etaiun adibidez, Gregorio Monrealek azaldu zidanez: *Me ha dicho mi madre que me de un pan a ordea*, hau da, auzokide bati ogi bat eskatzea, hurrengo batean beste ogi batekin ordaintzeko.

osto: 'lur goldatua eta birrinduaren gainean animalien atzean narras eramaten den ohol leunezko tresna'. Erandioko Goiherriko hitza. Azkuek hitz honetarako 'tejido de seto' dakar, alegia, eta horrek inoiz tresna hori hurriz-zurtoin bilbatuekin egiten zela pentsarazten digu, oraindik leku batzuetan horrelakoak ageri dira eta.

otaka: 'otea' Orozkon normalki erabiltzen den hitza. Azkuek Nafarroa Behereko eta Erronkarikotzat jotzen du, soilki. Interesgarria da *-ka* atzizki txikikari hau, Gipuzkoaldeko *zumaka* hitzean errepikatzen dena.

paniquesilla: Soldadutzan Lizarra ondoko Muez herriko lagun nafar bati 1969. urtean entzundakoa eta Gregorio Monrealek aurrean Etaiuko hitz-tzat berretsia. Francisco Goñi eskolapioak Villatuertan *paniquesa* esaten diotela argitu dit. Luis Antonio Montesek ere bere liburuan aipatzen du, *paniqueseta* moduan, *paniquesero* berba eratorriarekin batera, herri-interpretazio interesgarriarekin lagundurik (100-101. orr.). Mendebaldeko euskalkietako *ogigazta*-ren itzulpena da, geografiaren arabera hor euskaraz egin zenean *erbinude* aldakia espero litekeen arren. Dirudenez baina, hegoaldeko lautadek mendebal eta ekialdeko euskaldunen arteko harremanak errazten zituzten, lexikoari gaur ezustekoa den hedadura eskainiz. Alde horretatik, F. Goñik azaldu didanez, bere garaian Deierrikoek harreman handiagoa izaten zuten mendebaldeko jendeekin Barranka-Sakanakoekin baino. Azazetako mendatea, antza, iraganbide errazagoa zen Andia mendikatea baino.

Mikel Gorrotxategik azaldu didanez, Karrantza aldean *paniquesa*-ren metatesia den *paquinesa* aldakiak bizirik dirau gaur ere.

retura: 'erretura'. Kantabrian Sobako haranean, Bizkaitik oso gertu, erabiltzen den hitza, 'larrea egiteko asmoz erretzen den basoa' adierazteko: *Han hecho una retura para tener más prado*. Toponimoa ere izaten da. Ene aitaren jaiotetxean, Santa María de Soba herritxoan, bazuten zelai bat *La Retura* zeritzona eta beste auzotegietan ere baziren izen bereko beste larre batzuk ere. Azkuek hitz honen itzulpentzat erdarazko 'rotura' ematen badu ere, ez da

erraz ageri latinezko *ruptura-tik* datorren *rotura* hori, esangura aldaketaz gainera, *retura* nola bilaka daitekeen, hitz horretan ez baita posible tarteko **rmetura* moduko aldakirik. Kantabriaraino helduriko euskarakada bat izan daiteke.



Orozko etxea aurrean andaputxua duela

sator: Hitz elkartu hau Euskal Herri osoan hedatua dugu eta, beraz aski zaharra dela esan dezakegu. Osaerari dagokionez, zinez esan daiteke *sagu*-ren laburdura den *sat-* elementuarekin hasten dela, adierazten duen animaliak (*Talpa europaea*) saguarekin duen antza kontutan izanik. Bigarren elementuaren esangura, ordea, *-or*, ez du inork, nik dakidala bederen, azaldu. Ene ustez, eta hipotesi gisa, *-or* hori gaur egun iparraldean oraindik bizirik dagoen *or* ‘txakur’ hitza (hiztegi batzuetan, oker, *ora* gisa emana) izan daiteke, 1596.eko *Refranes y Sentencias*-en Bizkaialdean ere ‘txakur’ eta ‘mastin’ moduan ugariro dokumentatua: *ogia lenago ora baino* (RS 86); *ora otsoen lagun* (RS 346); *ezin eusi daian orak, intziria* (RS, 388).

Izan ere, sator bat eskuan izan eta ahoa ikusi dion edozeinek badaki —eta hasieran harridura sentitu ere bai— intsektujale horren hortz-haginak, satorraren antzekoak barik, txakurrarenak bezalakoxeak direla, letagin zorrotz nabarmenak dauzka eta. Ez litzateke harritzekoa, beraz, antzinako euskaldunek ‘sagu txakur’ gisako izenarekin bataiatzea. Alde horretatik, gogoan izatekoa da erdialdeko euskalkietan *luhartza* (<*lur-hartza*) deituriko intsektua (*Gryllotalpa gryllotalpa*), satorrarekin duen antzagatik espainolez *grillo-topo* edo *alacrán cebollero* eta frantsesez *taupe-grillon* edo *courtilière* deritzona, Bizkaian eskuarki *lur-txakurra* esaten zaiola.

Oztopoa izan daiteke, noski, *or* hitzaren azken *-r* hori beti dardarakari bakuna izatea (*ora*), *satorra*, aldiz, dardarakari anizkuna gertatzen den artean.

Edonola ere, ez ditzagun ahantz euskaraz maiz gertatzen direla horrelako bikoiztasunak (cfr. *oilarra* baina *oilaritea* (<*oilar-joitea), *biharretik biharrera* (Ax.) baina *biharamuna*, *zeren / zerren*, *harez* baina *harrezkero*). Beraz, kasu honetan, *or* berba zahar hori —eta bukaerari dagokionez, *zer*, *nor*, *paper*, *plater*, *ur* eta beste zenbait kasurekin batera, salbuespenezkoa— galduz eta hitza-ren etimologia bera ilunduz zihoan neurrian *-r*-rekin amaitzen diren gainerako hitz gehienen multzoan erraz sar zitekeen (cfr. *plazera / plazerra*).

tonto-monto: ‘kokolo edo inozo itxurako pertsona azkarra’. Nabarnizen erabiltzen den hitza, adjektibo eta adberbio balioarekin: *bai oso tonto-montoa da baina azkenean nahi dauana egiten dau beti. Tonto-monto ibili zan, ezer ulertzen ez ebalako plantak eginez, baina ederto atara euskun jakin nahi ebana*.

trages: ‘soroetako lurra xehetzeko laborantza tresna, normalean burdinazko hiru hotz dituena’. Erandioko Goierriko hitza. Azkuek *tragas* aldakia dakar.

turdidu: ikus *durditu*. Forma honetan Erandioko Goierri aldean esaten da.

txibierroak: ‘txibia, txipiroi eta olagarroen erroak, bai eta zefalopodo horien gorputza, zirrindoletan ebakia; eskuarki frijiturik jateko’. Ondarroako hitz arrunta, erdarazko ‘rabas’-en ordain egokia; *bazkari prestatzen zituen artean, txibierro batzuk atera zituen mahaira, gosea kentzeko*.

txiripiri: Azkuek bere hiztegian (B?) zeinuarekin ematen du ‘tximeleta’ adierazten duen berba hau. Nabarnizen behintzat hitz hori bizirik dago eta hangoei maiz entzun diet. Formaz *ziri-miri*, *duda-muda*, *handi-mandi*, *xistmist* (Leiz.) eredurari darraio, turkieraz eta Kaukasiar hizkuntzetan maiz egiten den bezala (cfr. georg. *axlo-maxlo* ‘oso hurbil’, *axlo* ‘hurbil’; *are-mare* lit. ‘inguru-minguru’). Kasu honetan, ordea, bigarren elementuak, /m/ barik, /p/ darama, fonema hori daukan beste hitz batekin (*txirimiri / zirimiri*) ez nahasteko.

txirri-txirri: ‘*kilkirra*’. Nabarniz, Gernika eta inguruko herrietako hitza. Azkuek *txirri* dakar, *labatxirri* adibidearekin, baina ez du aipatzen era berretu hau. Formaz literaturako *kilkir* ohikoagoaren antzera eraturik dago, hasierako onomatopeia-hotsa errepikatuz, azken kasuan disimilazioa agertuz: *kirkir > kilkir.

zaticar: Burgosko iparraldeko herrixka batean, Quintanilla de Sotoscuevas, 1996.eko urrian baserritar batzuei entzuna: *la leña aquí es barata, comprada en el monte. Lo malo es que después hay que zaticarla. Zatico*

hitza³ Errioxa aldean dokumentatzen da, Gonzalo de Berceoren obran (1220-50), eta han bezala, Burgosko eskualde horretan ere euskaldunen eta euskararen behialako presentziaren lekukotasuna azaltzen digu berba horrek.

Harrigarria da, edonola ere, Etxepare eta Leizarragarekin hasita, iparraldean eten gabe erabili den hitz hori, *zaticatu* alegia, gaur egun Bizkaiko eta Gipuzkoako herri-euskaran erabat galdurik egotea. Agian, iparretik hegorantz doazen gaurko euskalkiez gainera, ekialdetik mendebaldera Sakanatik eta Lizarrerri aldetik Arabarantz zetozen isoglosa galduek azal lezakete kide-tasun hori (cfr. *abarra, molso, paniquesilla, okaran...*). Errioxa eta Burgos aldean Erdi Aroan nafarrek egindako jendeztaketa ahantzi gabe. Ez da kasualitatea, adibidez, Sotoscuevas-ko haranean Villaváscones derizon herrixka aurkitzea.

zelati: ‘zeloak dituen, jeloskor’ Gernika inguruan erabilia (Meatan, Nabarnizen...): *ez dakizu asko neska horren mutila zelango zelatia dan*. Hitz berriak moldatzeko orduan aspaldion ahantzixea dugun arren, gogoan izan beharko genuke *-ti* atzizkia oraindik bizi-bizirik dagoela. Izan ere, ohiko *goseti, loti, lotsati, herabeti, ahalketi, txizati, salati, gaixoti, haserreti, hitz-mizti, beldurti* moduko hitz zaharren ondoan badira, *legeti, haserreti, temati* (temoso-rekin batera), *sinoti, setati, bakarti* eta *zelati* gisakoak ere, hedadura urriagoatik eta oinarritzko hitzaren arabera (*tema, sino* (<*signo*), *seta* (<*sekta*), *bakar, zelo*) zalantzarik gabe berriagoak. Atzizki hau oso baliagarria dateke era horrelako beste joera biziotsu edo gehiegizkoak adierazteko: *drogati, saltsati, tabakoti, ardoti, eskopetati, jokati, berriti, normati, arauti, arrazati, borrokati, pezetati, istiluti, bazterti, txokoti, suti, arduragabeti, edonorati, noragabeti, gurati, mezati*, edo 1997.eko martxoaren 5eko *Egunkariaren* 11. orrialdeko izenburu batean ageri den “*epai gatazkatia*” adibidez.

zepa: ‘perretxiko’; Nabarnizen Bittor Goiriena zaharrari entzuna, menditik nekartzan onddo batzuk ikustean honela esan zidan eta: *Zepa ederrak dakazuz*. Formaz eta esanguraz hitz hau, seguraski, frantsesezko *cèpe* ‘onddo’-tik heldu da (edo, segurkiago, horren etimoa omen den gaskoierazko *cep*-etik), baina ez da erraz asmatzen nolako bide ezkutuetatik heldu den Bizkairaino, tarteko euskalkietan beste arrasto ezagunik utzi gabe.

zotazal: ‘lurraren azal mehea, belarrekin aterea’, ‘zotal’ (<*zot*-azal<*zohi*-azal) Erandioko Goierriko hitza, aurtan J. Sagasti Orozkori eta horren emaz

³ Eta lehenago (1014) horren eratorria den zatiquero ‘ogiaren ardura zuen jauregiko morroia’ ere bai. Ikus Joan Corominas, *Breve diccionario etimológico e la lengua castellana*, Ed. Gredos, Madril, 1990 (624. or.).

te Begoña Aurrekoetxeari entzuna. Beharbada, jatorri berekoa dukegu *mokil-* en sinonimoa den *zokil* (<zot-hil <zohi-hil) soro landuan lehorturik dagoen lur zatia adierazteko, maiz *sokil* gisa idatzia.

zotazaldu: 'zotazalak egin, lurraren azala kendu, azaleko belarrekin batera, zopizartu'. Aurreko hitzaren lekukotasun bebera.

zitu: Nabarnizen jaso.'xaxatu, haserrarazi'. *Txakurra zitatzen badozu, azkerrean min egingo deutsu;* (<*in-citare*), aurrizkia galdurik, euskarazko mailegu zahar askotan bezala.